

MIRARI ILUNA

Alkaternaren kontra etengabe talka egiten zuten euri tanten hotsak iratzarri ninduen. Ezker betazalean jasan ezinezko azkura sentitu nuen. Ezinegonak eraginda esku-barrenak gorri biziz margotu nituen, inolako zalantzarik gabe, odolatan nintzen. Kristal pusketa ñimiñoz inguratuta nengoan, ostera, jatorrizko objektuaren arrastorik ez nire inguruan. Nigandik arra betera, zonaldeko etxeetan ohikoa zen Gaztelugatxeko egutegi bat begiztatu nuen. Zenbaki xeheak lauso ikusten banituen ere, azalean, hizki larriz inprimatutako urtea argi antzematen zen, 2016.

Gauaren iluntasun itxian, euripean, noraezean eta urratuta nengoela, beldurrak bereganatu ninduen. Bat-batean, garrasi lazgarri bat entzun zen urrunean. Bertaratzeko asmoz, alkaterna busti eta odoleztatutik altxatu nintzen. Segituan sentitu nuen zorabioa zela eta, alde batera utzi behar izan nuen nire asmoa. Belaunak guztiz akituta nituela barailak lurra jo zuen, konortea galduz.

- Sentitzen dut baina tamalez ezin dugu ezer gehiago egin Agategatik. Kolpe latza jaso du burezurrean eta koma egoeran dago. Mirari baten zain itxaron beharko dugu. – Aretxabaleta neurologoa Zainketa Intentsiboetako Unitatetik burumakur aldendu zen, sumintasunez betez boxen gela.

Hautzaroan denbora luzea ematen nuen nire babeslekuan, baserriko tirabira zaratatsuetatik ihesi. Tira!, nik “Txotxina-Enea” izena jarri nion baina benetan, baserriko garaia zen. Arto, patata eta babarrun uzta bildu ondoren, bertan pilatzen ziren ale mordoak. Euskal Herriko klima hezetik babesteko, habearri zutabeen gainean, bizpahiru metrotara eraikitzen zen. Zuotariko asko “Txotxina” izena nondik datorren ariko zarete pentsatzen. Istorioa aspaldikoa da, osaba Joseina bizi zenekoa. Ikaragarri maite nuen osabak oso goiz utzi gintuen, 1984ko Agate Deuna egunez, zortzi urte bete nituen egunean. Baina ez gaitezen bidezidorretatik galdu eta itzuli gaitezen harira. Osaba Joseina “mutilzaharra” zen eta gurekin bizi zen baserriko ganbaran. Aita mozkortzen zenean aurre egiteko ausardia agertzen zuen bakararra zen eta jipoi zenbatezinetatik libratu gintuen ama, neba eta hirurok. Gaur egun oraindik ere bere lurrin eta tabako beltz nahastearen usaina gogora datorkidanean, babestuta sentitzen naiz eta negar malko batek nire masaila bustitzen du. Amak sarritan kontatzen du ahotik atera zitzaidan lehen berba, osaba ospitalizazio luze batetik etxeratu zenean bota nuela. Baserriko kolarretik haren irribarre amaigabea eta begi berde sakonak sartzen ikusi nituenean, pozaren pozez, “Txotxina” oihukatu nion. Denak barrezka hasi ziren eta momentu hartatik aurrera, osaba “Txotxina” izan zen guztiontzat. Horrexegatik, babestuta eta bakean sentiarazten ninduen gotorlekuari, “Txotxina-Enea” jarri nion.

Baina zein lotsagabea naizen! Oraindik ez natzaizue era formalean aurkeztu. Agate Mendizabal Ugarte dut izena eta harrotasun osoz esan dezaket, berrogei urteko Bermeotar emakume baserritar bakarra naizela. Animalietatik eta baratzetik bizirauten duen belaunaldi luze bateko azken aurreko fruitua naiz. Ez dakit nola iritsi naizen leku honetara, ostera, hemen nago laino eta eguzki izpien artean nire bizitza gazi-goxoko pasadizoak zuokin partekatzen. Mutur bietatik soinu arraroak entzuten ditut eta erabaki ezinik nabil. Alde batean jendetza zarataka eta bestean berriz, negar zotinek estaltzen duten amaierarik ez duen soinu errepikakor bat. Erabakigarria izan daitekeen bidea hartu arte, kontakizunarekin atsegin emango zaitzuet.

Lehenengo Jaunartzeaz bat, baserriko lanetan hasi nintzen. Animalia zalea izanik, aitzak txahalek kortan utzitako gorotzak eta oiloen arrautzak batzen jarri ninduen. Nire adineko neskatxak udaletxe aurreko plazan garai hartan modakoak ziren panpinekin jolasten zuten bitartean, nik orduak ematen nituen simaur eta gernu hats sarkor artean. Eskuin hankarekin ekin nion goiz euritsu batean berriz, adoretz bete eta aitaren logelara hurbildu nintzen errege eske. Uda hasi berria zen eta ikasgelako neskekin batera, Oinarrizko Hezkuntza Orokorra gainditu genuela ospatzera joan nahi nuen. Beno, sekretutxo bat kontatuko dizuet orain ez gaituela inork entzuten, ospakizunarena aitzakia besterik ez zen. Indiar Ozeanotik lau hilabete neketsu eta gero patrika atzeritar diruz beteta zetozen arrantzale gazteen, "txo" bezala ezagunak, zain geunden. Nik begi urdin eta txima luzedun Julian Bilbao nuen begiz jota baina hark, ezikusiarrena egiten zuen nire ondotik bere ibilera handiustearekin igarotzen zen bakoitzean. Baina oraingoan ezberdina izango zen. Bego lagun-minaren lixagailuarekin ileak atondu eta margotzeaz gain, amamak Gabonetan oparitutako lihozko soineko ikusgarri bat janzteko asmoa nuen. Bularraldea goratu, bizkarra airean utzi eta gerria ederki nabarmentzen zidan. Noski, honen gainean aitari txintik ere ez, bestela ez nintzateke gaurkoan zuokin berrikeretan egongo.

Eguzkia Bakio aldetik ezkutatzarekin batera, Julian eta bere koadrilakoak gugana hurbildu ziren. Denen artetik ederrena nirea. Jaietako mahoizko alkandorak bere bular sendo eta iletsua airean uzten zuen. Era berean, ipurmasaila nabarmentzen zioten galtza bakero estuak, atzerrian erositako narruzko oinetako dotoreetan zuten amaiera. Plaza Nagusiko olezko banku hartan tentsio sexuala nabaria zen. Gutxitan agertzen nuen adorea erakutsiz, ordu bete luzez berotutako eserlekutik altxatu eta gazte gizonduaren aurrez-aurre jarri nintzen. Bizar moztu berriaren usain goxoa barruraino sartu zitzaidan eta haren begi berdeek nireekin bat egin zutenean, ezin izan nuen haren soa jasan. Albo batera begira eta non sartu ez nekiela, nire masailek ohikoa baino kolore gorrixkagoa hartu zuten, geldiezinezko lotsa algara

irrigarriak inguruko zarata oro estaliz. Juliani dibertigarria iruditu zitzaion eta ur gaziak lakartutako eskuarekin, makotik alde egindako ile sorta alboratu ninduen, bere ezpain umelek nireekin bat eginez.

Gau hartan Maria Errauzkin bezalaxe sentitzen nintzen, aitak jarritako ordu-muga aldi oro kontrolatzen. Artean hamar minutu gelditzen baziren ere, banekien aita autoan egongo zela nire esperoan eta agurtzeko ordua heldu zitzaigula adierazi nion Juliani. Ez zitzaion batere ideia ona iruditu eta bular aldea kasik obsesioz laztantzen zidan bitartean, bi etxaditara zegoen bere pisura igotzea proposatu zidan. Buruan nuen aitaren haserre aurpegiak eta Julianen gero eta nabariagoa zen begirada lizunak eraginda, ezezko erantzun biribila jaso zuen nigandik horretara ohitua ez zegoen gizon-gazte arroak. Alabaina, nire ezezkoari muzin eginez erantzun zion eta goizeko ordu txikietan inguruko kaleetan arimarik ez zegoela aprobeztatuz, eskumuturretatik bortizki heldu eta paretaren kontra jarri ninduen. Negarrari ezin eutsi nenbilela, aske uzteko erregutu nion behin eta berriz, ordea, ahalegin oro ezetarako. Hamalau urte nituen eta larrua jotzeko umeegia sentitzen nintzen oraindik. Ardoak koloretutako mingainaz nire lepoa lerdentzen zuela, lihozko soinekoa aldaka aldera igo eta kuleroak indarrez jaitsi zizkidan. Aske uzteko nituen itxaropen guztiak xahutu ziren eta ahaztezinezko arnasestu beroak nire emakume eta pertsona duintasuna zapalduta eta lurperatuta sentitzen nuela, damurik gabe eta indarrez bortxatu ninduen. Betirako bihotza urratuta utzi ninduten hamar minutu amaigabeak igarota, mesprezuzko bultzakada batez galtzada-harrira bota ninduen, zera adieraziz agur mezu modura: *“Esan dizut gustatuko zitzaizula”*.

Gizon higuingarriaren itzala kale kantoian galdu bezain pronto eta oraindik erdi biluzik nintzela, zapata hotsak entzun nituen bestaldetik nigana hurbiltzen, aita zen. Ez zuen txintik esan baina momentuan behar nuena eskaini zidan, bere beso indartsuen besarkada batek bakarrik eskaini ziezadaketen babesa. Ez nion gau hartan gertatutakoaren xeheetasunik eman nahi izan inori, hitzak labur gelditzen baitziren sentitu nuen mina eta mesprezua deskribatzeko.

Hilerokoa ez zitzaidan jaisten bortxatua izan nintzen gauetik eta denborak, sentitzen nuen larritasuna areagotu besterik ez zuen egiten. Susmo txarra hartzen nion eta lotsaren lotsez, ondoko herriko farmaziara hurbildu nintzen haurdunaldi proba baten bila. Handik bueltan, kortako irol kirastuak eskaintzen zidan bakardadean jaso nuen haurdun nengoenaren baieztapena. Kopetatik etengabe zeridan izerdi hotzak goitik behera busti ninduen amen batean.

Hurrengo asteetan nire garuna egoera hartatik ateratzeko irtenbiderik egokienaren bila jo eta ke lanean zebilen arren, momentuko itsutasunak oraindik ere damutzen naizen jokabidera bultzatu ninduen. Denboraldi berriko patata ereiten nenbilela eta bitan pentsatu gabe, aitzurraren kirtenarekin sabelpea bortizki kolpatu nuen, soinean neramatzan praka argiak, alutik zeridan odolak ilundu zuen arte. Barruan neraman zigotoa eta askoz gehiago galdu nuen egun hartan.

Etsialdiak jota ikasketak utzi nituen eta baserrian aurkitu nuen ene aterpea. Lagunek Mendizabaltarron lursailetatik ateratzeko hamaika ahalegin egin zituzten arren, nik tinko eutsi nion neureari. Baserriko lana garai berrietara egokitu beharra izan genuen eta erronka hura izan zen niretzat sendagairik onena. Osaba "Txotxinak" oinordean utzitako lursailetan negutegiak muntatu eta ureztatze zein ongarritze prozesuak automatizatu nituen. Europar Batasunetik bultzatutako "Nekazaritza Politika Bateratuaren" ondorio zuzena izan zenak, bizitza zeharo aldatu zidan. Berotegi efektuaren ondorioz jasotzen nuen uzta hain zenez oparoa, erkidegoko supermerkatu kate nagusira saltzen nuen produkzioak etekin ugari eman zizkidan urte gutxitan. Inbertsioa arin batean berreskuratu nuen.

Enpresari paperean gustura eta asebeteta sentitzen nintzenez, inguruko auzoetan arrakasta zuen landetxea martxan jartzea otu zitzaidan. Osabaren baserri eraitsia berritu beharra zegoen ametsa betearazteko eta banketxean bezero astunenaren izengoitia meritu osoz irabazi ostean, mailegua lortu nuen. Eraberritze lanen arduradun bezala, konfiantzazko aditu batekin kontaktatu nahi nuen. Arlo horretan guztiz ezjakina nintzenez, aspaldiko partez eta telefono finkoa hamaika aldiz eseki eta eskegi ondoren, Bego lagun-min ohiari hots egin nion. Ez nekien nola erantzungo zidan, urteak generamatzalako berba egin gabe. Zehazki bederatzi urte, bost hilabete eta hamasei egun, bortxatua izan eta babes burbuila barruan sartu nintzen gau hartatik. Nebak kontatuta, minduta zegoenaren jakitun nintzen, alabaina, bere erreakzioa harridura eta zirrararen artekoa izan zen. Lehen ordu erdi pasatxoak negar egiteko eta nire erruz galdutako denbora berreskuratzeko erabili ostean, harira joan ginen. Ikastolan gure ikaskidea zen Markel Lejardiren gainean primerako erreferentziak eman zizkidan. Konkretuki, Begoren izebaren txaleta gustu handiz dekoratu berri baitzuen. Markel nor zen asmatzea erraza zen, ez baitzen oharkabe pasatzen. Irakaslearen aurrean, adi-adi eta txintik esan barik esertzen zen, bere leiar potolodun betaurrekoekin, azenario koloredun ile kizkur eta higiene eskasaz mantendutako ortodontziarekin. Bere estudiora hurbildu nintzenean berriz, ezusteko galanta hartu nuen. Nerabazaroko xarma gabeko mutikoaren lekuan, metro bi eta igerilari gorpuzdun gizon galanta aurkitu nuen. Ukipen-leiarrek berriz, betaurrekoek ezkututzen zuten begirada sakona agerian uzten zuten eta lehen janari zabortegia zirudien irribarreak, bere distiraz itsutzen ninduen. Baina bereziki haren ahotsaren tonu baxuak eta ongi hezitako moduek liluratu ninduten zeharo. Nitaz ederki gogoratzen zen. Gure artean gelditu dadila eta txutxu-mutxu bezala, dudarik gabe emakume senak gustuko ninduela adierazten zidan. Ikasgelan elkarrekin igarotako bizipenak gogora ekartzen zituenean, masailen erabateko gorritzea eta urduritasun keinu nabarmenak antzeman nizkion. Nire autoestimua lur azpitik berpizteko edabe bihurtu zen momentu hura.

Bi ordu luzez proiektuaren inguruan berrikeran ibili ondoren, biziki maite nuen amamaren Renault 19 zaharrea igo ginen baserriko bidea hartuz. Markelek "Txotxina" landetxerako buruan nuen ikuspegi berria segituan harrapatu eta barneratu zuen. Arreta aurpegia momentu oro mantenduz, zorroan zeraman A3 tamainako diseinu blokean marraztu zituen lehenengo zirriborroek, nik obsesiboki bilatzen nuen lasaitasun kontzeptua ezin hobeto transmititzea lortu zuen. Ederra eta adeitsuaz gain, azkarra zen tipoa! Proiektuan buru-belarri inplikatu zen eta elkarrekin ematen genituen orduak, gure arteko harremana sendotu zuten.

Dirutza izugarria inbertitu eta lan eskerga egin ondoren, barruak jaten ninduen ate irekitze gaua heldu zen. Proiektuaren arima eta aita lez, Markel bertan espero nuen, ordea, ez zen agertu. Mugikorak noiz joko zain egon nintzen gau osoan, hain ondo ulertzen ninduen pertsonaren presentzia beharrezkoa nuelako. Utz ditzadan harrokeriak eta onartu dezadan agerikoa zena, izugarri maite nuen. Eguneko pentsamendu guztiak berak betetzeaz gain, irratiko maitasun abesti guztietan, haren ezpain haragitsuek parerik gabeko musu umelaz urtzen nindutela irudikatzen nuen. Zalantza barik, urteetan lurperatuta izan nituen sentimenduak loratzen hasiak ziren. Maitasunaren lorea indartsu eta tente hazteko ongarririk onena nuen, Markel. Gonbidatuak amak eta biok prestatutako mokaduak errioxar ardoaz bustitzen entretenituta zebiltzala, kolarrera atera nintzen Markeli hots egiteko asmoz. Atariko haritz oholdun atea zabaltzeaz bat, arnasestuka eta izerditan blai agertu zen. Gogotik saiatzen zen arren, nekez hitz egin zezakeen eta barrura sartzeko gonbita luzatu nion. Buruarekin aurreratzeko keinua egiten zidan etengabe eskuin besoa bizkarraldean ezkutatuta zeraman bitartean. Kuxkuxean ibilita ere, zertan zebilen ez nion antza hartzen. Atoan eraberritu zuten coladun freskagarriari zenbait zurrupada eman eta izerdia xukatu ostean, azalpenak eman zizkidan. Zonaldeko arrain enpresa baten bulego berriak eraikitzeke diseinu proiektuan lanean zebilela, orduak oharkabean joan zitzaizkion aurrera. Konturatzeko, ate irekitzeko ordua gainera etorri zitzaion eta bidezidorretik joanda lehenago iritsiko zelakoan, bideari ekin zion. Tamalez, autoa ongi ezagutzen ez zuen tarte estu batean trabatuta gelditu zitzaion. Larrituta, inoiz botata utzi ez zuen garraioa bertan laga eta landetxera heltzeko gelditzen zitzaizkion lau kilometroak lasterka egin zituen. Momentu hartan eta bitan pentsatu gabe, nigandik arra betera hurbildu zen eta haren urduritasuna sumatu nuen. Libre zeukan ezker eskuarekin masailak emekiro laztantzen hasi zen, betirako oroimenean grabatuta geldituko zitzaidan esaldia botaz: *Agate, munduari ortozik bira emango nioke, helmuga zure maitasuna izango balitz*. Zur eta lur utzi ninduen bere aitortza eder eta hunkigarriak. Hori gutxi balitz, bizkarraldetik, erabat originala iruditu zitzaidan ekilore-sorta atera eta oparitu zidan. Gogortuta nuen bihotza guztiz errenditu zen eta berotasun sexualak eraginda, bidean aurkitu nuen lehendabiziko logelara arrastatu nuen.

Harenganako grinak desioz betetako gau batera zeramakidan eta ez nintzen beldur, nire intimitatea errespetatzen ninduen gizonarekin partekatuko nuelako. Maindire azpian biluzik ginela eta lepoa umel-umel musukatzen ziharduela, nire barruan sentitu nuen. Eszitazioak beste mundu batera ninderaman, garrasi eta izerdi artean, klimaxera heldu arte. Ohe gainean ahozgora etzanda, elkar begiratu ginen lilura begiez loak irabazi gintuen arte.

Gure arteko ezkongai-harremanaren hasiera sugartsuak, espero bako ustekabe atsegina zekarren berarekin. Haurdunaldiak ilusioz eta poztasunez bete gintuen eta landetxearen beheko solairura aldatzea erabaki genuen. Lanetik bueltan eta beheko suaren argitan, Markelek ipuinak kontatzen zizkion barruan neraman mirariari. Bizitzak, kolpe latz ugari eman ostean, Markel bezalako gizon zoragarri bat ipini zidan bidean eta asebeteta eta zoriontsu sentitzen nintzen.

2001. urteko igande eguzkitsu batez, Mirari jaio zen. Konplikaziorik gabeko bi orduko erditze naturalaren ondoren, hiru kilo eta berrogeita hamar zentimetrotako neskato ederra besoetan hartu eta emozioak gainezka, negarrez hasi ginen. Bi aldeetatik lehen loba eta iloba izanik, bisita ugari jaso genituen ospitalean. Bestalde, bisitariak, lo faltak eta Mirariren negarrek ez zuten gure ilusioa urritu.

Asteazken gauean, ginekologoaren azken gomendioak entzun eta kalerako prestatu ostean, landetxerako bidea hartu genuen. Euskal Herriak eguraldi zatarraz agurtu gintuen. Itsaso aldetik zetorren haize bortitzak autoa kulunkatzen zuen eta haizetakoaren kontrako euriaren etengabeko joak, gure arteko komunikazioa galarazten zuen. Markelek abiadura mantsotu zuen zeharo baina, Mundakako hondartza parean eta iluntasunak antzematen uzten ez zuen putzu sakon batetik igarotzean, autoaren kontrola galdu zuen.

Zer gertatzen da? Bat-batean kontakizun guztian zehar inguratzen ninduten laino xeheak urtzen ari dira emeki-emeki. Inguruko soinu eta zarata guztiak eten egin dira eta ustekabean, begiak zabaldu eta hitz egiten ari zaidan bata zuridun gizon burusoil baten ondoan, ama ezagutu dut.

- Agate, izartu, koma egoeratik irten zara, zorionak. – nire erreakzio positiboa ikusita, gelatik aldendu zen halogeno lanparak igortzen zuen argi baxuak mesedetzen zuen intimitatean utziz ama eta biok.

Bere poztasun imintzio eta hitzek ez naute nire nahasmenetik aldentzen. Logelako izkina guztietan zehar Markel eta Mirariren bila dabilta nire begi argitu berriak. Lan alferra nirea, ez zegoen haien arrastorik.

- Ama, non daude Markel eta Mirari?

- Ez zaitetz kezkatu maitea, osaba Txotxinak zainduko ditu.